

## DENBORA NEURTZEN PROBLEMAK

1. - Urtarrilaren 7a da gaur. Zein urtaroan gaude?

gaude.

2. - Maiatzaren 15a da gaur. Zein urtaroan gaude?

gaude.

3. - 2020. urtea bisurtea izan zen. Zein izango da hurrengo bisurtea?

a izango da hurrengo bisurtea.

4. - Andreak 9 urte eta erdi ditu. Zenbat hilabete ditu?

hilabete ditu Andreak.

5. - Atzo asteazkena izan zen. Asteko zein eguna izango da bost egun barru?

izango da bost egun barru.

6.- Matematika klasea 9:45an hasten da eta 50 minutu irauten ditu. Zer ordutan bukatuko da?

an bukatuko da.

**7.- Amagoiak hegazkina 19:00etan hartu behar du. Aireportuan 90 minutu lehenago egon behar badu, zer ordutan egon behar du aireportuan?**

egon behar du aireportuan.

**8. - Silvia 17:15ean geratu da parkean lagunekin. Etxetik parkera 15 minutuko bidea badu, zer ordutan aterako da etxetik garaiz heltzeko?**

ean aterako da.

**9. - Adierazi minututan**

a) 2 ordu eta erdi =  minutu.

b) 3 ordu eta laurden =  minutu.

c) Ordu erdia =  minutu.

d) Ordu bat eta erdi =  minutu.

**10.- Adierazi ordu eta minututan**

a) 95 minutu =  ordu eta  minutu.

b) 100 minutu =  ordu eta  minutu.

c) 65 minutu  ordu eta  minutu.

d) 120 minutu  ordu eta  minutu.